

Bi langile hil dira egun berean altueretako erorketen ondorioz

Gaur goizean 2 langile hil dira altueretako erorketen ondorioz Euskal Herrian. Lehena 28 urtekoa, Nafarroako Olletan, telefonia poste batean igota, Movistarrentzako lanean ari den Elecnor enpresak era berean azpikontrataturik duen enpresa batentzako lanean ari zela. Bigarrena Loion, 47 urteko langilea, Gecsa enpresaren azpikontrata batentzako desamiantatze lanean ari zela, teilatutik erorita. Bi hauekin, gutxienez 47 dira urte hasieratik Euskal Herrian hildako langileak. Lehenik eta lehen, LAB sindikatuak elkartasun eta babes osoa adierazi nahi die hildako langilearen senide, lagun eta lankideei.

Nafarroako Olletan telefonia poste zahar batean kobrea kentzen ari zen langilea, poste eta guzti erori da honek antza bere pisuari ezin eutsi, 8 metroko erorikoa eraginez. Iaz istripu hilgarri oso antzekoa gertatu zen Araban, honetan ere postearen egoera txarrak ez zuen langilearen pisua eutsi ahal izan. Bistan da beharrezkoak diren bitartekoak balitu ez zukeela postean zintzilik ibili beharko eta istripua ekidin zitekeela. Kasu hauetan Movistar-ek ez ditu altueretarako saskidun kamioi egokiak erabiltzen kostuak gutxitzeko, eta berriki hainbat santzio jaso ditu neurriak ez hartzeagatik. Dirudienez, merkeagoa zaie langilearen heriotza.

Bitartean, Loiuo Gecsa enpresan azpikontrata bat teilatuan desamiantatze lanak egiten hastera zihoan. Atzo, lanak hasi baino lehen, LAB sindikatuaren delegatuek desamiantatze lanen inguruko informazioa ezagutzeko bilera eskatu zioten Gecsa-ri, enpresak ukatu zuelarik. Gaur goizean, langileak 9 metroko erorikoa izan du bertan hilez.

Patronalak absentismo faltsu baten gezurra bolo bolo darabilen garai honetan, bere heriotz zerrenda beltza handitzen dihardu, gaurkoekin 47 heriotz eraginez 2024an. Lanak eta prekaritateak eragindako istripu hilgarri hauen artean asko dira altuerak eragindakoak, ximpleki enpresek lan osasunerako araudia betetzen ez dutelako.

Azken 10 urteetan, Euskal Herrian, gutxienez 81 langile hil dira altueratik erorikoen ondorioz, gehienak eraikuntzaren sektorean. Heriotza berri honekin, aurten 8 langile hil dira arrazoi horrengatik.

Horrenbestez, eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko legea indarrean sartu zenetik ia 30 urte igaro ondoren, gaitz sozial eta laboral hori saihesteko neurriak hartu behar dira berehala.

Horretarako, funtsezkoa da erakundeen kontrola, lan-osasunari buruzko araudia bete dadin eskatzeko. Ezinbestekoa da patronalari lan osasunerako araudia betearaztea, izan ere ez bazaie behartzen, inpunitate osoz hiltzen gaituztelako.

Lan-istripu berri hau eta altueretako erorketen ondorioz gertatzen diren istripuak salatzeke, datorren ostegunean, urriaren 17an 11:00etatik aurrera, LAB, ESK, STEILAS, EHNE-Etxalde-HIRU eta CGT/LKN sindikatuok ekimena egingo dugu, Iruñeko Gazteluko plazan, "Patronalak amilarazten gaitu" lemarekin.

Euskal Herrian, 2024ko urriaren 15ean